

Pierre Minjonnet
Baigorri, Nafarroa Beherea (1895)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean eta unibertsitatean zegoen ikasketak egiten. Aita Baigorri jaioa zen, ama, aldiz, Argentinan. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.194 eta 2.195

Zintak

BAI-014

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-02
- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Baigorriko uholdeak

- **Erref:** BAI-014/001
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:57

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Baigorri nola mintzatzen diren euskaraz galdetu ziotenean, herrian izandako "uralde izigarria" kontatzea bururatu zitzaion.</p>

Transkripzioa

Jaunak, behar dauziet ixtorio bat kondatu; Otrixa beheretik jin den jaun batek nahi baitu jakin nola giren mintzatzen eskuaraz Baigorri; eta iduri zaut hoin urrunetik jin eta zerbitzu hori mehexi diila. Lehenik hasiko niz hemen zer berri dugun erraiten. Denak ondar denbora hotan harritu gitiina da huralde izigarri hura. lundaino ez ahal du nehok ikusi gure Baigorri gaixoa holako zafaldi baten hartzen. Astelehen goiz batez ihurziriak marrumaz iatzartu gaitu, denak ginauden harritiak orro hori aituta zer behar ote zen gerthatu. Gero hasten da gaitzeko euri tempesta bat, bitra leihoak zerraturik izanik ere, nundik nahitik sartzen zen hura etxe barnetarat. Pentsatzen duzien bezala irri guti ziin jendiak: gizonak ixilik, emaztiak othoitzean, gaindelu saindua phizturik. Oren pare batez euri izigarri hori gelditu gabe zerutik jeutsi da; laborari gaixoa noiz geldituko zen harriturik zagon beha bere funtsetarat hea makhurrik baziin kustera juan nahia. Ba eta arrazoinekin zen hola beldurtia. Kanporat atera delarik harriturik gelditu da nigarra begian. Hura heldu zen mendier behera burruxtan.

Mazeleri behiti ekhartzen zitiila lur, harri, egur, harrapatu guziak. Errekak eroturik bezala, beren bidia utziik pentze alorren erditik heldu ziren errekolta guziak berekin eremanez. Hoinberze hur menditarik jinez hur haundia ere itsuski goititzen da, bazterretako funtsetarat zalapartaka sarzen da, geroago eta gorago dua. Azkenean etxeetarat heltzen baita. Ordian deurriin itzulua, jendea doi-doietarik eskapatzen da: kabalak marrumaz, xakurrak orroaz, xerriak bizkarrean kurrinkaz. Uroski Baigorri ezta kabalarik bezik itho; uroski zubia du hurak ereman berzenaz karrika guzia erotik bazaman. Eia erraiteko hola ere baduu malurik aski zeren anitz denbora beharko da Baigorri lehen zen bezala bere bereratu orduko. Jendeak du jendeak du kuraia berriz hartu jakitearekin orotarik laguntza jinen zitzakola. Hortan da agertu zonbat eskualdunek dugun elgar atxikitzen; Baigorri guziak behar ditu eskerrak itzuli hurran edo urrun gutaz okupatu diren jauneri. Jakiten ahal dute hek ere denak oroituko girela eta noizbait gutaz beharzen badira ikusiko dute heren borondatia ez dugula ahatzia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com